

Irantzuk bazeukan zertan pentsatzeko denbora eta arrazoiak ere. Hori esaten zuen bere begirada galdu eta atsekabetuak. Ezartzeko erak eta eskuek ere asko zioten. Zoritxarra gertatzen ari zen neskatilaren bizitzan. Harri zati batean eserita, bere adats beltzarekin, ile bat bera ere ez zen mugitzen bere lekutik, dena zegoen bere lekuan. Bere janzkera oso arraroa zen, betidanik zeukan janzteko estilo propioa; jantzi arrosa zeraman, luzea, baina udarako oso aproposa, bolanteduna baitzen. Zapatak oso sinpleak ziren, bi tiradun sandaliak eta beltzak.

Bizitza momentu politez eta zoritxarrez betea dago. Hau Irantzuk ondo baino hobeto zekien. Txikia zenean, bere amona Rufinak hau esaten zion askotan: “Momentu politez gozatu, zoritxarra beti ere iristen da eta”.

Tenerifera oportretan joan zen udan, bere bizitzak 360 graduko bira ematera ekarri zuen. Inork ez lukeen pentsatuko zeukan guztia albo batera utzita joango zenik. Familia, lagunak, bere ametsetako lana... albo batean utziz. Buruan zeukan bakarra txoraturik utzi zuen Ignacio zen. Gizona ez zen sekulakoa, ez zeukan kristoren lana denek deseatzten zutena, ez unibertsitateko gradurik, ez diru askorik, baina bazeukan zerbait, Ondarroako emakume bat guztiz maitemindu zuena, bihotz ona. Kliska bat baino arinago, han zegoen Irantzu, Tenerifera bueltan, bere bizitzako gizona berriz ere ikusteko irrikaz. Egitasmo asko zituzten buruan bi txoriburu hauek, apartamentu txiki bat erostetik hasita, mundu osoan zehar bidaiatzera.

Urte baten buruan, Irantzuk lanetik arinago bueltatzeko itxaropena zeukan, etxera iritsi eta afari erromantiko bat prestatzeko kanarietako jakiekin. Etxerantz zihoala, azokatik pasatu zen, papak erosteko, asko gustatzen baitzitzaizkion bere Ignacio maiteari. Poltsa batean sarturik, etxerako bidea hartu zuen berriro ere. Bizi ziren herrira ez zen turista gehiegi joaten, baina egun hartan, aurpegi ezezagun asko ikusi zituen herriko plaza inguruan. Oso arraroa iruditu zitzaion, baina aurrera jarraitu zuen.

Etxeko sarrerara heldu zenean, giltzak atera orduko atea zabaltzen hasi zela ikusi zuen. Bitxia iruditu zitzaion, beti bi buelta eman beharko lituzkeelako etxera sartu ahal izateko, beraz, bi posibilitate pentsatu zituen. Ignacio etxean egon zitekeen, baina ezinezkoa zen, lanean baitzegoen, horregatik, segituan bigarren posibilitatera eraman zion, lapur bat izan litekeela. Askok larritu zen Irantzu eta sukaldera sartu zen zuzenean. Labana eskuetan harturik ez zuen jakin nola erreakzionatu, ez baitzen gai mugitzeko. Bat-batean, soinu bat entzun zuen.

Emakume baten ahotsa zen, lapurra emakumea ote zen? Dena oso arraroa iruditzen zitzaion, etxean norbait zegoen eta gainera emakumea. Beraz, Irantzuk lehenengo aukera baztertu zuen, hots, lapur bat sartu zitzaion etxera. Beldur handia sartu zitzaion Irantzuri gorputzean, baina ezin zen han gelditu, etxeko izkina batean, itxaroten. Beraz, labana hartuta, ahotsa zetorren gelara hurbildu zen, hau da, Ignacio eta bere logelara. Segituan, atea zabaldu eta labana aurrera zuzendu zuen, gela hartan zegoenari aurre egiteko.

Oraindik ezin zuen sinetsi gela hartan ikusi zuena, non eta bere logelan. Inoiz ez zuen imajinatuko horrelakorik gertatuko zitzaionik, lapur bat zegoela pentsatuz, ezinezkoa egiten zitzaion Ignacio beste emakume bat ukitzen ikustea, ez txortan egiten. Horixe izan baitzen ikusi zuena. Bere gizona beste emakume baten eskuak eta arnasa sentitzen; bere atal intimoak ikusten. Bihotza erdibitu zitzaion momentu hartan, egin zuen guztia eta albo batera utzi zituen gauza guztiak, ez zuten ezertarako balio izan. Urte horretan zehar bizi izan zituen momentu zoragarri guztiak joanak ziren, zorigaitza iritsi zen. Bere amama Rufinaz gogoratu zen Irantzu, nola berak esaten zion askotan esaldi hura eta bai, konturatu zen, zoritxarra ere beti iristen dela.

Momentu hori ikusi zuenean, labana lurrera jauzi zitzaion, “shock” egoeran gelditu zen eta Ignacio eta emakume hura han zegoela konturatu zirenean, haien sekretu guztiak argi eta garbi gelditu zirenean, lotsaren lotsaz gelditu ziren. Ignacio Irantzuri azalpenak ematen saiatu zen, baina Irantzuk jada ez zuen ezer ere ez entzuten. Momentu hartatik aurrera ez zuen azalpenik, ez arrazoirik nahi, ikusi zuena egina zegoen. Irantzu korrika batean alde egin zuen, Ignacio atzetik zeukala, baina Irantzu bere baitan sartuta zegoen, ez zen ezer gehiagoz konturatzen.

Etxetik alde egin ondoren, azkar ibiltzen hasi zen, noraezean. Jende multzo handiekin elkartzen zen, baina Irantzu ez zen ezertaz konturatzen eta batzuetan, estropezu egiten zuen jendearekin. Hauek, emakume hura egoera horretan ikusita, arduratuta begiratzen zioten, baina alferrikakoa zen. Aurrera begira zegoen denbora guztian, baina aurrekoa ikusi ezinik. Bat-batean, kale batetik bestera pasatzerakoan, auto batek izugarritzko freno eman behar izan zuen, abiadura handiz zihoalako; Irantzu ezergatik ez zuen harrapatu eta autoari begira gelditu zen. Momentu horretan konturatu zen non zegoen eta nola, ikusi zuenagatik ia hilda zegoen. Kale hartan zebilen jendea istripua gertatu zen lekura hurbiltzen hasi ziren, dena ondo zegoen ziurtatuz. Autoko

gidaria ere ibilgailutik jaitsi egin zen eta Irantzurengana joan zen zuzen-zuzenean. Ondo zegoen galdetzerakoan, negarrez hasi zen, ume txiki baten moduan. Gidaria lasaitzen saiatu zen, deskuidu bat izan zela esanez eta kotxerik pasatzen zen begiratu behar zela esanez. Irantzuri negarra bakarrik irteten zitzaion, ezin zion esan ia hil egin zionari bere negarraren arrazoia ez zela ia hiltzea, baizik eta bere bihotzeko mina.

Neskatila harri baten gainean eserita zegoen Garachico-ko kaian, non usoren bat zebilen janari bila; kaia pasatuz, itsaso urdina zegoen, oso nahasia zebilena eta indar handiz jotzen zuena harkaitzetan. Hauek ere, ez zeuden oso umoretsu, eguraldi txarrak herri osoa tristatu zuen, gure Irantzu maitea bezala; zerua hodei grisez estalita zegoen eta ez zen eguzki izpirik ageri.

Harkaitzetatik urrunago, Teide mendiaren gailurra ageri zen, hodei gehiagorekin inguratua zegoena, baina paisai ederra zena, oso arraroa baitzen eguraldi hori egitea zonalde hartan. Kaiaren parean, baina pausaleku batzuekin bereizirik, labaz egindako igerileku irekiak zeuden, non maiteminduen bikote bat zegoen bainu bat hartzen eta oso gustura ikusten zitzaien. Igerilekua labaz eginikoak zirenez, ura beroa zen, beraz, eguraldia ez zen arazo bainu bat hartzeko. Pausalekuetatik ere pertsona gutxi batzuk zeuden paseo txikiak emanaz eta tenperatura epelaz gozatzen.

Irantzu ez zen ezertaz ohartzen, ez eguraldiaz, ez jendeaz, ez itsasoaren soinu ederraz; bere begirada galdua igerileku irekien eskumatara zegoen dendara begira zegoen, goialdean zegoen kartelean agertzen zen idatzia “Puerto de Garachico El Limonero”. Dendan lurralde hartako produktu tipikoak zeuden, jantziak, janaria edo arrabioen figuratxoak. Edonork esan zezakeen Irantzu denda horretara begira zegoenik, baina egia esan, bere bihotzeko minaz gehiegi eta nahikoa zeukan.

Bere mugikorra, arratsalde osoa zebilen dar-dar egiten, baina bazekien nor zen beste aldean zegoena eta ez zeukan inolako gogorik traidore horrekin hitz bat ere ez partekatzeko. Traizionatuta sentitzen zen, Ignacio eta bera bikote bat baino gehiago ziren.

Zerumuga amaigabea begiratzuz, Irantzu sandaliak kendu zituen eta jarraian, jantzia eranzten hasi zen. Harri ondoan utzita, kaiaren mugaraino hurbildu zen; itsasoa zertxobait lasaitua zegoen. Begiak itxiz, besoak luze bere sorbaldaren parean jarritz, itsasora salto egin zuen.